



ESKORIATZA

# ZE BARRI?

URLATIK • LANDETARA



4. Alea 1996ko Abendua



## GABONAK ZAHARREN EGOITZAN



ESKORIATZAKO  
UDALA  
Euskara Zerbitzua

*Natibitate aste eta bete,  
San Estebentxe  
hemendik aurrera  
len letxe.*

**GABON ETA URTEBARRI ON !**



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

Udaletxea 714407  
 Udal Bulegoak 714532  
 Udaltzaingoa 714407  
 Euskaltegia 792168  
 Kultur-Etxea 714688  
 Gizarte-Laguntzailea 714688  
 Kiroletxea 715328  
 Liburutegia 714688  
 Luis Eceiza 714938  
 Almen 714964  
 Museo-Eskola 714688  
 Ze Barri 714077  
 Talde Antimilitarista 715028  
 Irakasle Eskola 714157  
 Osakidetza 714452  
 Telesko 714917  
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300  
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76  
 Ertzaintza (Arrasate) 797199  
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800  
 Renfe (Zumarraga) 721515  
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030  
 Pesa (Arrasate) 791419  
 Larrialdiak (Arrasate) 771043  
 SOS Deiak 088

**AITZIBER NAFARRATE ARKAUZ**

**Kultur Etxeko Tabernaria**

**1.- Noiztik ari zara hemen lanean?**

Orain dela zazpi urte, Irailean hasi nintzen.

**2.- Zenbat jende batzen da tabernan?**

Mordoa, arratsaldetan dana betetzen da.

**3.- Zaharrak bakarrik joaten dira tabernara?**

Danetik sartzen da.

**4.- Euskeraz asko entzuten al da?**

Gehina erderaz.

**5.- Zer edaten da gehien?**

Ardo beltza.

**6.- Mahaietan zertan jokutzen da gehien?**

Gizonak kartetan eta dominoan eta emakumeak briskan.

**7.- Zer etortzen da gehiago, emakumezkoak ala gizezkoak?**

Gizezkoak, askoz gehiago.

**8.- Tabernan lan egiteaz gain, zertan erabiltzen duzu denbora?**


Aerobik, eskulanak...

**9.- Zer iruditzen zaizu "Ze Barri?" aldizkaria?**

Interesgarria iruditzen zait.

**10.- Zein aldaketa egin go zenuke alkatea bazina?**

Gazteentzako aktibitate gehiago.



Cuenta Joven  
 de Caja Laboral  
 El servicio  
 más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
 Kontu Gaztea.  
 Zerbitzuetan  
 osatuena.**

  
**CAJA LABORAL  
 EUSKADIKO KUTXA**



  
**LENIZ  
 ESKORIATZA**


Aingeru Ibiltokia, z/g.  
 Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**REPARACIONES LENIZ, C.B.**



## Parrokiako lanak



Aurrera doaz Parrokiako kanpandorrea egiten ari diren lanak. Hasiera baten Kanpandorrea garbitzea zen helburua, baina Soka Prot entpresak eta Gaver arkitektu donostiarrak egindako inspekzioetan kanpandorrearen egoera tamalgarria ikusi zen. Garbiketarak behar zituen 97.000 pezetatik aurrekontu askoz handiago batetara egin zen saltu, gaur egun ondorengo lanak egin behar direlarik: dorrearen pinakuluaren konponketa, hidrofugazioa, zartaketen itxiera, puntako gurutzearen konponketa, ...

Lan guzti honen aurrekontua lau miloitatik gora zihoan; guzti honen zati handi bat ordaintzeko dirua badago badago, baina falta dena ordaindu ahal izateko etxetik etxe diru bilketa bat egingo da herriaren eskuhartzea eskatuaz (horrela ia bi miloitatiko zati bat lortzea espero delarik).

Jose Barandiaran Familia Parrokialeko kidearen ustez herriaren erantzuna oso beharrezkoa da, "eliza ez bait da kristauen hiltzeko lekua bakarrik, Eskoriatzako herriaren ondare historiko eta kultural bezala ikusi behar bait dugu San Pedro Parrokia". Beraz, hurrengo egunetan zuen etxetatik laguntza bila igaroko dira, gure herriko ondare den eliza ahal den hobeto gorde dezagun. Gainera azken denboran atzeratuta ibili den gure elizako erlojua ordezkatu egin behar ei dute, digitala bihurtuz. Beraz, hemendik aurrera askoz errazago izango dugu zein ordu den jakiteko.



## ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA DURANGOKO AZOKAN

5 eta 8a artean ospatu zen Durangoko azokan Euskal Kulturaren aberastasunaren erakuzpide diren hainbat liburu, diska eta abar ikusi ahal izan ziren. Aurten egon diren berrikuntzen artean, batez ere teknologia berrien arloak erakarri du jende ugari. Telnologia berrien alorra ikutu duten entpresen artean, Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokaturik dagoen Ihardun Multimedia dugu. Aurten CD-ROM hauek aurkeztu ditu:

- **Printze Alaia** ipuin interaktiboa: Ipuin desberdinez osatuko den bilduma baten lehen alea. Moëbius saria jaso du European egin den multimedia produktu onenarentzat. Ipuin hauen bidez, umeeek ipuina bera eta bere egilea ezagutuz gain, beren ipuina osa dezakete, pertsonaia, inguru, mugimendu eta abar desberdinak erabiliaz. Bost hizkuntzatan aurki daiteke: euskera, gaztelera, ingelesa, galegoa eta katalanera.

- **Deba Garaiko Informazio Turistikoa**: Kanpoko eta bertakoentzat gure bailarak dauzkan gune interesgarrienei buruzko informazioa jaso dezakegu. Deba Garaiko historia, artea, kultura, folklorea eta ingurua ezagut ditzakegu, zerbitzu desberdinen aukerak (hotel, jatetxeak, ...) ikusteaz bat. Mila eta piku argazki izan dira erabiliak lan honetan. Euskaraz landua izan den arren, beste zenbait hizkuntzatan era kontsulta daiteke.



Honez gain, euskara ikasteko Multimedia bat eta Olleriasako Zeramika Museoari buruzko bat era aurki daiteke, beste zenbait produktuz gain.



# Eskoriatzako Zaharren Egoitza

Ohitura da gabonak etxekoekin elkartu eta familia giroan ospatzea. Zaharren egoitza batean Gabonak bereziak izan daitezkeela pentsaturik bertara joan gara euren bizimodua gertuagotik ezagutu eta aldi berean egoitzan egun hauek nola igarotzen dituzten jakitera.

Arratsaldeko 17:30'tan gerturatu gara egoitzara. Momentu honetan egongelan aurkitu ditugu bingoan jolasten eta eskertu beharrean gaude beraien jolasak alde batera utzi eta eman diguten harrera zabala. Aurkitu dugun giroa oso alaiak izan da eta elkarriketa egiterako orduan ere naturaltasun osoz aritu dira erantzuten, beti ere gizarte laguntzaileak bideraturik.

Kontatu digutenez, guztira 32 plaza daude egoitzan eta Udaletxea arduratzen da leku horiek betetzen, baldintza batzuk kontuan izanik. Momentu honetan 30 inguru bizilagun ei daude, izan ere denbora gutxian 3 hildako egon dira eta. Dena dala esan digute ez dela denbora asko pasatuko berriz ere bete arte.

Ia guztiak eskoriatzarrak diren arren, badira Aretxabaletakoak, Gatzagakoak, Zaldibarkoak eta Pasaia San Pedrokoak ere. Gehienak emakumeak; gaur egun gizonezkoak 6 dira bakarrik. Zaharrena Leokadia da eta 93 urte bete ditu Abenduak 9an. Gazteenak berriz, Luciniok, 58 urte ditu eta bera da denbora gehien daroana, 12 urte bete bait ditu Abenduaren 14an.

Gelatan binaka daude gehienak. 6 gela daude banan banakoak. Guztiak ere oso ondo ei daude, beren komun eta guzti. Gizonek, orokorrean behean dituzte beren logelak eta emakumeak goian. 8 monja daude guztira, horietako 4 jubilatuta. Bestalde 4 zaindari ere badaude, 2 sukaldean eta beste 2 gelak txukutzeko eta.

Lanerako sasoiak dauden zaharrek badute euren zeregina egoitza barruan: Ramonek ortuko lanak egiten ditu, Luciniok mahaia jarri, beste batzuk erratza pasatu, eta zeregin finkorik ez daukatenek aurrekoei laguntzen diete



## IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

## TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 715046

Pub CIPRI'S

Behin etorri  
Eta baietz berriz...



adibidez babak karanketan, sagarrak batzen (eta jaten...) etab...

Egun normal bateko ordutegia honako hau da:

8'tan jaiki, 9'tan gosalduta eta bazkalordurarte nahi dutena egiteko aukera daukate. 12:30'tan bazkaldu egiten dute eta 8'tan afaldu. Gero telebista ikusten dute gehienek.

Elena, gizarte laguntzailea, 3 egunetan etortzen da astean: astelehen, asteazken eta ostiralean 4:30 tik 6:30 tara. Bere lanari Maiatzean ekin zion eta oso pozik daude berarekin.

Astelehenetan eskulanak egiten dituzte, asteazkenetan memoria lantzeko jolasak eta ostiraletan jokuak, bingoa etab.

Astearte eta ostegunetan beraiek nahi dutena egiteko aukera daukate. Aldizkariak edo egunkariak irakurri, telebista ikusi, kartetan jolastu (musean eta briskan) edo noizbehinka egiten dituzten domino txapelketatan parte hartu. Kantuan ere egiten ei dute arratsalde batzuetan (Manoli, Isabel...). Jatordu bitartetan, kalera joaten direnak ere badira.



Mezak Zapatuan 18:00 tan eta Domekan 8:30 tan izaten dira. Egoitzan bertan 2 apaiz bizi dira, garai batean Eskoriatzako parrokoa izandako Don Fakundo eta Don Jose. Arratsaldeko meza Don Fakundok ematen du eta goizekoa berriz Don Josek. Nahi duenarentzako errosarioa ere egunero errezatzen ei dute, arratsaldeko 4'tan.

Udaletxeko gizarte laguntzailea ostiralero joaten zaie eta medikua ere noizean behin gerturatzen da. Gizarte laguntzaileak diozkunez egoitza, txikia izanik, giro ona egoten da (egoitza haundietan baino gehiago) eta berriek ere ez ei dute arazorik izaten bertara egokitzeko.

Gabonak betik dira bereziak: alkarrekin afaltzen dute monja eta bizilagun guztiek. Ondoren musika eta dantzaldia etortzen da. Noizbaiten Beloki joan den arren, normalean tokadiskoko musikarekin egiten dute dantzan, baina hala ere, oso gustora ibiltzen ei dira, baita monjak ere. Afarian menu berezia edukitzen dute. Oso ondo jaten dutela esan digute, angulak ere bai noizbait. Turroia eta txanpaina ez dadila falta. Gero opariak ere jasotzen dituzte: Olentzerotan bertakoen erregaluak eta etxekoak erregetan.

Kexarik ba ete duten galdetu diegunean denok erantzun digute ezetz. Oso gustora daudela bertan (janaria prest, ogea gertu, dena oso ondo). Batzutan gertatu izan ei da norbaitek egoitzara joan ez gura izatea eta gero oso gustora egotea.

Beraz, nahiz eta mota honetako egoitzek fama txarra eduki kasu askotan, Eskoriatzakoan bizi direnak behintzat oso pozik agertzen dira, ez dute beste inora joateko gogorik. Normala, egoitzako biztanleen artean nabari den giro zoragarria kontutan hartzen badugu.

### BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea  
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

### FRANCIS BODEGA

Muñarrate ardoa

Gaztañadui, 21 behea

### TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA**

### TOKI EDER

Taberna

Tfnoa.: 715438

BOKADILO, AFARI eta  
MERIENDAK



- Eskoriatzako Udaletxeak lehiaketara ateratako postuetan jadanik baditugu irabazle edo postu jabedunak: peoi bezala **Igor Arratek** jaso du postua eta peoi lurperatzaile bezala **J.M. Zubizarretak**. Hauez gain beste bi langile sartu dira ebentual, erreka garbiketa eta brigadaren beste zenbait lanetan laguntzaile bezala: **Karlos Azkarate** eta **Nikolas Arizaleta**.



- Elurra azkenengo urtean baino azkarrago heldu da aurten. Abenduaren lehen astean gure inguruko mendiak zurituta ikusi ahal izan ditugu (Kurtzeberriko argazkia lekuko), elurra ia herriraino bertaraino ere heldu delarik.

- Gaur egun Airtel-ek antena jarrita daukan leku berean Telefonikak beste bat jarri nahi du. Hasera batean biak batera kokatzea lortu nahi izan zen, baina honek zekartzan arazoak ikusirik Telefonikak berearentzako proiektua aurkeztu du. Oraindik erabakitzeke dagoen arren, badirudi laster beste antena bat ikusi izanahalgo dugula.

- Gure **herriko langabetuak** Gabonak direla eta, zenbait ikastarotarako dirua ateratzeko ideiaz, zuhaitzak saltzen hasi zaizkigu. Egunero ikus ditzakegu enparantzán, baita beste zenbait tokitan ere. Orain artean 50 bat saldu dituztela komentatu digute. Tamainaren arabera prezio desberdinak dituzte zuhaitzek: 1000, 1300 eta 2000.

- Aurreko egun batetan, Ikas Pilota erakusketaz bat, zenbait pelotari egon ziren hitzaldi bat ematen gure herrian. Pilotaz ezagupen larregi ez dutenentzat, beharbada ulertzeko zaila izan zen, baina interes handiko gauzak entzun ziren.



- **Iturrizarreko iturria** kamioi batek aurrean eraman zuen, demaseko triskantza eginaz. Hala ere, onazkero seguruarekin hitzegiten ari da Udaletxea iturria bere betiko egoerara bihurtu ahal izateko.

- Jakin ahal izan dugunez, Eskoriatzako neska gazte bat Ekuador aldean ari da mediku bezala lanean bertako biztanleekin. **Isabel Goikolea** orain dela urte bete inguru joan zen alderdi hartara, eta dirudienez gustora dago bertan lanean eta momentuz behintzat ez dauka bueltatzeko ideiarik.

## AKEITA

TABERNA

5etatik zabalik

Tfnoa.: 715094

KAFE, PINTXO eta BOKADILOAK

## Pub ALDATZ

Tfnoa.: 714171

Musika ona entzun dezazun



**MENDI IRTEERAK****Abenduak 25: Turroi eguna Aitzorrotzen****Abenduak 31: Eskoriatza- Aizkorri****Urtarrilak 11: Sky irteera.****GABONETAKO EGITARUA****Abenduak 21, larunbata**

TXISTORRADA jubilatuen egoitzan arratsaldeko 5etan. Ondoren dantzaldia eta oparien zozketa bazkideen artean.

GOROSARRI ABESBATZAK gabonetako kontzertua eskainiko digu gaueko 10tan San Viatorren.

**Abenduak 24, asteartea GABON EGUNA**

9'30 tan: 11-16 urte bitarteko gazteak elizateetara kantatzera joango dira.

10:30etatik 13:00 bitartean herriko haurrak Olentzerorekin batera herrian zehar ibiliko dira gabon kantak abeztuz.

Arratsaldeko 6 tan erresidentzian ekinda, Olentzero kalez kale ibiliko da herritarron kantuon laguntzaz.

Plazan gaztaina erreak jateko aukera egongo da bai goizenan bai arratsaldean.

**Abenduak 26 eta 27, osteguna eta ostirala**

HAURRENTZAKO PARKEA

Frontoian goizeko 11etatik ordu 1era eta arratsaldeko 4etatik 7etara. Dohain izango da.

**Abenduak 29, igandea**

GOROSARRI DANTZA TALDEAREKIN dantza emanaldia eguerdiko 1:30 tan plazan.

**Abenduak 31, asteartea**

FUTBITO TXAPELKETA 10-16 urte bitartekoentzat.

Polikiroldegian goizeko 10etatik arratsaldeko 4etara.

SASKIBALOI HIRUKO TXAPELKETA

Polikiroldegian arratsaldeko 5:30etan. Gizonezko eta emakumezkoentzat eta 18 urtetik gora eta behera sailkatuta izango da 4 taldetan.

TXIKITEOA TRIKITILARIEKIN arratsaldeko 7'30etan.

**Urtarrilak 1, igandea**

MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN KONTZERTUA San Pedro Elizan eguerdiko 1'30tan.

Gabonetan zehar **argazki lehiaketa** egongo da, eta Urtarrilak 25 eta 26an erakusketa egingo da kultur etxean.**DISKA GOMENDIOA**

Euskal Herrian Euskaraz taldeak Durangoko Azokarako atera duen musika bilduma. Talde ugari aurki ditzakegu bai CD bai kasete moduan eros dezakegun bilduma honetan (Benito, Mikel Laboa, Gari, Txakun, Negu Gorriak, Exkixu ...).

Talde guztiak oraindik grabatu gabe zeuzkaten abestiak aurkezten dituzte, bizpairuk ezik. Abesti guztiak gure hizkuntza dute gai.

Edozein euskaltzalerentzat derrigorrezko bilduma. Txomin eta Urbil Artolaren abestia, adibidez, zoragarria da.

**ZINE GOMENDIOA****MATILDA**Gabonetako pelikula berezia da. Neskatila superadimendun baten gurasoak beraien ardurekin lanpetuta daudelako neskaren hezkuntza ikastetxe baten esku utzi dute. Han bere gaitasunak garatuko ditu. **Entretenigarria.****EMMA**

XIX mendean Ingalaterran garatutako filmea da. Goi mailako gazte batek bere pentsakera besteei ezartzea lortzen du. Baina bere erruez konturatzen denean aldatzea lortzen du.

**URRESTILLA**

TABERNA

Tfnoa.: 714809

**Giro ona berandurarte**





Badira zenbait urte argazki hau aterea izan zela ere. Ezin izan dugu lortu argazkikoak nortzuk diren jakitea. Norbaitek baleki, informazioa bidal diezagula.

Honez gain zuen argazki zaharrak espero ditugu, beharrezko informazioarekin. Argitaratu ostean, argazkia bueltatu egin go dizuegu.

**Beharrezko informazioa: Argazkian agertzen direnen izenak, data, lekua + komentarioa. (ahal bada talde argazkiak izan daitezela).**

KOMIKIA



Edozeinek ZE BARRI? aldizkarian informazioa sartu nahi balu, Kultur Etxeko buzoian utzi, aldizkarirako dela adieraziz.

Aldizkari hau argitaratzen lagundu nahi duen guztia, ongi-etorriak izango da asteazkenero 7retan Kultur Etxeko bigarren solairuan egiten den bilerara.